

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako Arraia-Maeztuko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Idazkari-kontuhartzailearen lanpostua bete beharko da, hutsik dagoelako.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak hartu ditut kontuan, eta hau

Ebatzi dut

Lehenengoa. Prozedura abiaraztea proposatzeko izenda dadila estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat Arraia-Maeztuko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan jasotako moduetakoren batean.

Bigarrena. Bost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartze eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduan eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehen-tasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimen-duen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehentasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

Hirugarrena. Hautagaien lehentasun ordena ezarri ondoren, eta Arraia-Maeztuko Udalak izendapena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, hamar egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Bosgarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Izena: idazkaria. 3. klasea.

Lan harremana: estaturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estaturako gaikuntza.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailletza.

Azpitaldea: A1/A2.

Destino-osagarria: 26.

Berariazko osagarria: 29.580,82.

Hizkuntza eskakizuna: 3. Derrigortasun data: datarik gabe.

Arraia-Maeztu, 2025eko irailaren 2a

Alkatea

ANA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE MONJE ALZOLA

ERANSKINA

Nik, jaunak/andreak (NANa:; jakinarazpenetarako helbidea:; telefono zenbakia:; Estatutako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa: azpieskalakoa; gaur egun lanpostuan dihardut, toki erakundean, (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran –lankidetzat lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik–).

Adierazten dut

Jakin dudala Arraia-Maeztuko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela/ez duela titularrak betetzen, eta behin-behineko izendapenaren bidez, zerbitzu eginkizunen bidez edo zeregin pilaketagatik betetzeko aukera dagoela.

Betetzen ditudala lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

Eskatzen dut

Arraia-Maeztuko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunetan / zeregin pilaketagatik (ezabatu ez dagokiona), betetzeko prozeduran parte hartzea.

Hauek eransten ditut:

*NANaren fotokopia.

*Estatutako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

*Metaketako postua eskatuz gero, zereginen pilaketengatiko izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

....., 20.....(e)ko aren(a).

Sinadura: